

**UDALBATZAREN OSOKO BILKURAREN AKTA**

**Batzarra:** Ez-Ohikoa  
**Deialdia:** Lehena  
**Eguna:** 2014/02/06  
**Ordua:** 19.00 – 19.20  
**Lekua:** Izurtzako Udalbatza aretoa

**Bertaratuak:**

LUIS JOSE BALLARIN ALBERDI jn. (BILDU)  
NEREA ZARRABEITIA ASUETA. And. (BILDU)  
PEDRO JOSE JAYO GOROSPE. jn. (BILDU)  
PAUL BAÑOS ONAINDIA jn. (BILDU)  
OSKAR ZARRABEITIA ASUETA. jn. (EAJ-PNV)  
ETOR GORROÑO GEREDIAGA. jn. (EAJ-PNV)

**Ez bertaratuak:**

D. JOSE MARÍA ALBERDI GORROCHATEGUI (BILDU)

**Idazkaria:** David Álvarez Martínez



## **Aztergaiak**

- 1.- Aurreko Akta irakurri, eta hala badagokio.
- 2.- 2013ko azaroaren 18ko udalbatza aktaren zuzenketa, hala badagokio
- 3.- Udal kudeaketa eta alkatearen dekretuen kontu ematea.
- 4.- 2014ko aurrekontuaren hasierako onarpena, hala badagokio.
- 5- Udal Diru-Laguntzak kudeatzen dituzten ordenantzen hasierako onarpena, hala badagokio, proposatzea.
- 6.- Aurreko ekitaldietako gastuak onartzea, hala badagokio, onarpen proposatzea..
- 7.- Erreguak eta Galderak.

## **Esan-eginak eta erabakiak**

Jarraian, Alkate jaunak, azaroaren 28ko 2568-1986 Errege Dekretu bidez onetsitako Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 90. artikuluan zehaztutakoaren arabera, behar besteko quoruma dagoela egiaztatzeari ekin dio, eta batzordea eratutzat jo da.

Ondoren, gai-zerrendako aztergaiak aztertzen hasi dira.

### **1.-Aurreko Aktak irakurri, eta hala badagokio, onartzea. (2013/12/23).**

Alkateak, batzarrari hasiera eman ondoren, batzordekideren batek aktaren testuari buruzko adierazpenik egin nahi ote duen galdetu du eta, inork egin ez duenez, akta bozkatu eta bertaratutako kide guztien aho batez onetsi da.

### **2.- 2013ko azaroaren 18ko udalbatza aktaren zuzenketa, hala badagokio.**

Idazkari Kontu hartzaile jaunak hitza hartu du eta 2013ko azaroak 18ko udalbatzaren aktan akats bat ikusi egin dela esan du. Horrela aktaren hirugarren puntuan 010.902.00/Deuda a C/P esaten duen tokian, 010. 933.00/ Amortización deuda Erralde esan behar du

Beste inork parte hartu egin ez duenez, bertaratutako guztiek, aho batez, onartu egin dute aurreko zuzenketa onartzea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 105.2 artikuluan ezarritakoari atxikiz.

### **3.- Udal kudeaketa eta alkatearen dekretuen kontu ematea.**

Idazkari jaunak hurrengo dekretuen berri eman du.

<b>Zenbakia</b>	<b>Gaia</b>
170/2013	2014ko ekaineko aparteko ordainsaria eskatzeko prozedura finkatzea.
171/2013	Jar zaituz Abian hitzarmena onartzea
172/2013	Gastu onarpena.
173/2013	UE Garaunzaren birpartzelatze proiektuari hasierako onarpena ematea.

174/2013	Berme itzulketa.
175/2013	Ekaineko aparteko ordainsaria aurreratzea eskatu dutenei.
176/2013	Aurrekontu aldaketa. Kreditu transferentzia.
177/2013	Kontratazio prozedura haztea. Hirigintza aholkularitza kontratua
178/2013	Gastu onarpena.
179/2013	Aurrekontu aldaketa. Kreditu transferentzia
180/2013	Gastu onarpena.
181/2013	Obra txikiko kontratua esleitzea.
182/2013	2013ko aurrekontuaren luzapena onartzea.
183/2013	Gastu onarpena.
184/2013	Gastu onarpena.
1/2014	Lur, Lur gai eta Lurzorua erabileragatik kitapena
2/2014	Zenbaki balio gabetua.
3/2014	IVTMren itzulketa
4/2014	Legez kanpoko obrak aitortzea. Lizentzia gabeko obrak
5/2014	Lur, Lur gain eta Lurzorua erabileragatik kitapena
6/2014	Garaunzako PAUaren behin betiko onarpena.
7/2014	Udal materiala erabiltzeko baimena.
8/2014	Herri bideak erabiltzeko baimena.
9/2014	Herri bideak erabiltzeko baimena.
10/2014	Zerbitzu kontratazioan lizitatzailen sailkapena. Hirigintza aholkularitza kontratua.
11/2014	Jar zaitez Abian hitzarmenaren jarraipen Komisioan udal ordezkaria izendatzea.
12/2014	Antzinasuna aitortzea
13/2014	Gastu onarpena.

Udalbatzak aurreko dekretuen jakinean ipini da.

#### **4.- 2014ko aurrekontuaren hasierako onarpena, hala badagokio.**

Alkate jaunak hitza hartu du eta 2014ko urtarrilaren 28ko Ogasun Batzordearen proposamenaren berri eman du. Aurrekontu errealistak dira eta maximoan betetzen saiatuko dira, batez ere inbertsioei buruz dagokionez. Era berean gaineratu nahi du urtean zehar ikusten bada inbertsio gehiago egin behar direla, aurrekontuaren aldaketa egin daitezke kreditu

erremamentearekin, zorrik ez daukagulako.

Zarrabeitia Asueta jaunak hitza hartu du eta esan du bere taldetik zenbait proposamen egin zirela eta bat onartu zaiela. Beraien uztean kultur arloan behar gehiago daudela ikusten dute eta erabilera anitzeko lokal baten premia. Egia da aurrekontuak errealistak direla eta badakite haiek egiterakoan dauden zailtasunak. Aurrean esandako guztiagatik, egia bada Ogasun Batzordean abstenitu zirela, gaur alde bozkatuko dute. Era berean, eskatu nahi du gaiak dagozkion komisiotan jorratzen jarraitzea eta guztiaren informazioa edukitzea.

Alkate jaunak hitza hartu du eta Zarrabeitia jaunaren interbentzioaren harira, lokalak erabiltzeko ordenantza bat egiten ari garela esan du. Behin betiko proposamena daukanean bidaliko die. Era berean adierazi nahi du 2003ko udal bideen erabilpena kudeatzen duen ordenantzaren eguneratzea egitea pentsatzen ari dira, hau da, tasa KPlarekin eguneratu eta herritarren alde dagoen exentzioa kentzen.

Ez da beste inolako interbentziorik egon eta bozketa egin ondoren bertaratutako kideek, aho batez, ondorengo onartu dute:

**Lehena.**- 2014ko ekitaldirako udal aurrekontu orokorra hasiera batean onartzea.

**Bigarrena:** 2014ko ekitaldirako udal aurrekontua exekutatzeko oinarriak onartzea.

**Hirugarrena:** Espedientea jendeaurrera agertzea 15 eguneko epean, alde zuzenetik iragarkia jarriko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Epe horretan interesatuek espedientea aztertu eta erreklamazioak aurkeztu ahal dituzte Udaltza Osoaren aurrean. Hau guztia, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko 10/2003 Foru Arauaren 15. Artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aurrekontua behin betiko onartutzat joko da, epe horretan zehar erreklamaziorik aurkeztu ezean; alderantzizko kasuan berriz, Udaltza Osoak hilabeteko epea edukiko du horiek argitzeko.

Udal Aurrekontua, behin betiko onartua, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da kapitulu kapitulu laburturik eta argitaratuko den egun berean izango da indarrean.

**5- Udal Diru-Laguntzak kudeatzen dituzten ordenantzen hasierako onarpena, hala badagokio, proposatzea.**

Alkate jaunak hitza hartu du eta 2014ko urtarrilaren 28ko Ogasun Batzordearen proposamenaren berri eman du.

Ez da beste inolako interbentziorik egon eta bozketa egin ondoren bertaratutako kideek, aho batez, ondorengoa onartu dute:

**Lehen.**- Diru-laguntzak emateko ordenantzei hasiera batean onartzea, espedientean dagoen testuaren arabera:

- 1.-Seme-alabak jaiotzeagatik edo adoptatzeagatik diru-laguntzak emateko ordenantza 2014.
- 2.-Alokairuko etxebizitzak eskuratzeko diru-laguntzak emateko ordenantza 2014.
- 3- Euskara eta kirol arloko diru-laguntzak emateko ordenantza.

**Bigarrena:** Ordenantzak jendeaurrera agertzea 30 eguneko epean, aldez aurretik iragarkia jarriko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Epe horretan interesatuek espedientea aztertu eta erreklamazioak aurkeztu ahal dituzte Udalbatza Osoaren aurrean. Epe horretan inork erreklamaziorik aurkezten ez badu, hasierako onarpena ematen duen erabaki hau behin betiko onetsizat joko da.

**6.- Aurreko ekitaldietako gastuak onartzea, hala badagokio, onarpen proposatzea.**

Idazkari jaunak hitza hartu du eta 2013ko urtarrilaren 28ko Ogasun Batzordearen proposamenaren berri eman du.

Ez da beste inolako interbentziorik egon eta bertaratutako bozketa egin ondoren bertaratutako kideek, aho batez, ondorengoa onartu dute:

**Lehen.**- Aintzatestea Udai honi eska dakizkiokeen kreditutzat, aurreko ekitaldietan hartutako gastu konpromisoari dagokiona, eta ondorengo zerrendan agertzen dena:

Basoinsa SL

7.550,40€

**Bigarrena.-** Apirilaren 20ko 500/90 Errege Dekretuaren 26.2.b) art.ak xedatutakoarekin adostasunez, aurreko kredituak egungo ekitaldiko gastu aurrekontuaren baitan erantsiko dira, dagozkien gastu partidetan.

## **7.- Erreguak eta Galderak.**

Zarrabeitia Asueta jaunak hitza hartu du eta Errepide Salletik bidalitako idatziari buruz komentatu egin du berak, lehenengo eta behin, ulertzen duela Udalak Aldundiaren jarrera ez ulertzea. Baina bestaldetik ez dugu ahaztu behar eskatutako ez dela bete. Badaki jabeekin dagoen arazoa, hau da, zortasuna eman zenean ez zutela inongo euskarririk egotea. Baina egia da proiektu bate gauzatzeko baimena eskatu zela eta gero beste bat egin dela. Beraz Aldundiaren jarrera ere ulertu behar dugu.

Alkate jaunak hitza hartu du eta zortasuna baldintzatuta lortu zela adierazi egin du. Horrela ezin zitekeen jarri oztoporik pabiloietara sartzen ziren kotxeei. Markesinaren gaia ez da hain garrantzitsua, zeren eta dagoen lekutik kendu dezakegu eta beste alde batera eraman. Beraiek esaten dute dagoen tokian traba egiten duela, nahiz eta berak horrekin ados ez egon. Lehen horma bat zegoen eta ingurua hobetu egin da. Arazoa euskarrien kolokazioagatik dator. Dena den ez bagaituzte baimenik ematen, geltokia kenduko dugu eta Bizkaibusa datorrenean ikusiko da non gelditzen den.

Zarrabeitia Asueta jaunak hitza hartu du eta ingurua hobetu dela aitortu du. Hala ere, araudiarekin bete behar da, eta bahiz eta gustukoa ez izan jarraitu behar dugu.

Alkate jaunak hitza hartu du eta gogoratu egin du oraindik udalak bermean jarritako 2.000€ dauzkatela.

Gorroño Gerediaga jaunak erantzun dio logikoa dela espedientea oraindik zabalik baitago.

Horrenbestez, aztergai gehiago ez dagoenez, bilkura amaitutzat jotzen da, eta bertan aztertutakoa eta hartutako erabakiak jasotzeko honako akta hau egin dut, Alkate jaunaren oniritziarekin.

Idazkarria

O. E.  
Alkatea